

NEGUKO LOREAK

Zubentzako, Euzkadi'ko umiak, idatzi dagidala agindu dauste.

Umien ixenian zerozer eskatzen danian ¿ukatu lefeke? ez, neuk beintzat ezin ixan dot. Baña ¿zegafik begiratzten nozube begijak zabal-zabalik, ikaratuta ba'zengoze lez?... ¿Enozube ezautzen?... ezta ardura. Itxi egixubez zuben jolasak eta adiñu egistazube.

¿Etxatxube atsegin ixaten basotik ibiltia?

Bai, zuben begi samufetan igafi dot, jain gozua da azke ixatial Erexi batekuak gara; igon mendijetara, jatzi ibafetara, eztago edefagorik. Onakoetan geure goguak egaz egiten dau ta geure bafuban Jaun-Goikua'ri guf-egifen dautsogu, ikusten dogun gustijak erakusten dauskuzalako bere ala ta andifasuna.

Onakoxe baten neu niñoyan efeka argi baten eftzatik eta an ufin, zelayan, basetxe polit bat ikusi neban. Ufian of bixi ixango da, geure abendearen semeren bat, esan neutson neure burubari; sartu, aguf-egifeko.

Atia zabalik eguan; bai-dakixube euzkotafaren bijotz eta atia, iñuak iñoz eztirala egon ez euzkotaferi, ez afozteri be; zoritxafez.

Begiraka asi nintzan, eneban iñor ikusi; alde batetik bestera ibili nintzan neure etxian ba'nengo lez, eta afituta gelditu nintzan. ¿Zein itxalgafija zan nekusana!

Antxe, bastef baten, ama eguan, bera bakafik, etzita, negafez...

Zaratea somauta, buruba jaso eban eta bere negaf-malko artetik ikusi ninñuban.

Bere bafuba asaskau gura ixan eban, eta neure ifanduneri erantzun eustan:

«Bakaftasuna da neure laguna, egunez eta gabez negafez nago, eztago atserik neurentzako; seme eskaf-txafekuak ufatu ebezan neure jantzijak, ezetzi ebezan neure asikera onak, eta laga-

tu nindūben. Pozak iges-egin eban neure bijotzetik, neure semiak ostendu ziranetik; lastef ilgo naz eta neure onduan eztot semerik eukiko, begijak isteko.

Ofaño noz-o-noz itxopen izpi bat saftzen yat bijotzian.

Negu onetan, an dagon leyo atatik ikusi neban zugazno bat, lora zuri batzukaz, azten ziranak udabafija ba'litz lez, txiki-txikijak baña; loratxu ofek ¿zerozer eztauste esan gura ixan ixango? Egun baten biafba, neure ilbeak elduko yataz eta euren mafasun eta alegiñakaz poztuko dauste neure bijotza ta aitzu egingo daustez neure naigabeak>.

Alan itz-egin eban ama zorigaiztodunik eta ifibafe bat ageftu zan bere ezpanetan; itxopena eban, ondiño...

Atse emon neutson, al ixan neban gustija ta aguf-eginda gero, etxeranza abijau nintzan.

Au edestu dantzubedan artian ¿zegañik ilundu da zuben gogua?... ¿zegañik zagoze negahez? ume mañiak. Zubek etzarie seme ofelakuak, bijotz zindodunak baño; ta ofegañik entzun egistazube: Euzkotañ danen Ama, itxiña dago, bere asikera onak ezetziña, ekandu utsak zapalduta, edestija aitztuta, bere ele edefa basteftuta. ¿Nortzuk poztuko dabe geure Ama'ren bijotz ausija?... ¿Nortzuk ixango dira Euzkadi'ko neguko loreak?... Zubek, ume kutunak, zube kan itxoten dau. Zuben zañetan euzko-odola daruazube; mañe-egixubez'bera, bere gauzak, eta batez-be abendearen gogua, euzkera edefa.

Zorijontsubak, txiki-txikiñan au irakufi dagikezubenak, eta neu be irakaslari bateri eskafak, euzkel-jakimenez eta ontasunez betia, geure ele edefaz itz-egin eta idatzi dagiketzubedalako.

Berari neure betiko eskaf-ona.

Orain zuben jolasetara biguftu zañez, baña ezegixube aitzu geure Ama gaizkatzeko zuben bijotzian azi biaf dabela geure asabaen asikera onak.

Erazi'tañ Karmele.